

egunekoa

Paul Nicholson, Mikel Noval, Josu Egireun eta Edu Lertxundi

(Hemen eta Munduan erakundeko kideak)

Porto Alegretik Montpellierrera

MSTko nekazariak Monsanto elikagai-industria transnacionalaren soja soroen aurka eginiko suntsiketa geure buruetan dagoen honetan, eta Porto Alegreko Munduko Gizarte Foroan emandakoari gainbegiratu ematen diogunean, merezi izan duela diogu. Eta ez bakarrik 122 herrialdeko 4.000 pertsona baino gehiagoko parte-hartzea izan duen Munduko Gizarte Foroa Davosen eginiko Munduko Foro Ekonomikoaren kontrapuntua izan delako; baizik eta nazioarte mailako mobilizazio-egutegia ezarri duelako, politika neoliberalarentzat alternatiba zehatzak definitu dituelako (laborantza-erforma aldarrikatuz, non lurraren, uraren eta hazien gozamina nekazarietarako izango den; kanpo zorraren barkamena eta beronek eragindako kalte historiko, sozial eta ekologikoen konponketa; zerga-paradisuen desagertzea; giza eskubideak benetan betetzea; baliabide naturalen zein ondasun publikoen pribatizazioaren aurkako jarrera; subiranotasuna herrirentzat; planeta desmilitarizatuaren alde...) eta mundu osoko gizarte mugimenduen arteko harremanak sendotzeko balio izan duelako.

Munduko Gizarte Foroa «munduko kontraboterearen jaiotza» izan da. Michael Löwyren hitz horiek, nahiz eta ez duten errealtate borobila adierazten, jasotzen dute Porto Alegren bildu ginen gizarte-mugimenduen asmoa, «munduko herri oro etorkizun hobea sortzearen aldeko borrokan bat egitera» deialdiaz amaiera eman zion Foroaren asmoa. Transnacional eta finantza-kapitalaren aurkako borroka, bizitza esparru guztietan merkaturaren nagusikeria ezarri nahi

duten asmoen aurkako borrokarako nahia. Munduko Gizarte Foroak, otsailaren 26 eta 27an Cancunen bilduko den Munduko Foro Ekonomikotik hasi, eta Qatarren azaroaren 5etik 9ra bilduko den Merkataritzarako Mundu Erakundearen urteroko gailurrean amaituko den prozesuari erantzuteko asmoa du. Ekitaldi horien artean azpimarratu behar ditugu apirilaren 17an nekazaritzako produktu merkeen inportazioaren aurkako nazioarteko mobilizazio eguna eta Genova-n, apirilaren 15etik 19ra bitarte, egingo den G-8en bilera.

Porto Alegreko topaketaren lorpen handienetako bat mobilizazio-egutegi honen aldeko konpromisoa izan da. Deialdian esaten den bezala, «Munduko Gizarte Foroan parte hartzeak geure borrokan elkar ulertzea aberastu eta gu geu kemendu gaituelako».

Hau dela eta, Foroa pasatuta gure aurrean ditugun borrokei egin behar diegu so; eta horien artean, bere garrantziaz zein egunekotasunaz, ekainaren 30ean eraikitzen ari ziren MacDonald's sinbolikoki desmuntatzeagatik hiru hilabetera zigortuak izan ziren Confédération Paysanne-ko sindikalista (Nekazal Konfederazioa) eta Frantziako Millauko elkartzemunduekiko elkartasuna; hau dela eta, otsailaren 15 eta 16an, Montpellierrera, kartzela-zigorren aurkako errekurtsioa ikusiko da.

MacDonaldsen aurkako ekintza hori Gobernu frantsesak hormonaturiko okele ez inportatzeko erabakiaren aurrean Gobernu yankiak harturiko errepresaliari erantzunez egin zen. Ekintza horren bidez, transnacionalen onurarako soilik diharduten Merkataritzarako Mundu

Erakundea, Nazioarteko Diru Fondoa, Banku Mundiala eta Batzorde Europarra bezalako nazioarteko instituzioak ezartzen duten mundualizazio liberala ere salatu zuten.

José Bovék, irailaren 13an, epaiaren berri izan zuenean, zioen epaileek ez zutela ezer ulertzen munduan gertatzen ari zenaz, ulertu ez zuten bezala epaituen alde 100.000 pertsonak egin zuten elkartasun manifestazioa, transnacionalen esanetara dagoen eredu soziala salatuz.

José Bovéren presentziak Porto Alegreko Foroan parte hartu zutenen eta komunikabideen interesa esnatu zuen, bere konpromiso militanteak Monsanto-ko soja soroaren aurkako suntsiketaren parte hartuz. Egitate horrek Gobernu brasildarraren hira piztu zuen, eta Bové Brasildik premiaz egotzi zuen. Bistan da elkartasuna borroka idazten dela, eta herri solidarioak senidetuta daudela.

Otsailaren 16an milaka pertsonak Montpellierrera joko dute epaituekiko elkartasuna adieraztera, haien borroka gurea delako, eta epailei mundu hau ez dela salgai esatera, zein Confédération Paysanneko sindikalisten aurkako epaiak gizateriaren zein naturaren aurka eta elikagai-industriaren zerbitzura diren politika ekonomikoak suspertzen dituzten Merkataritzarako Mundu Erakundea, Nazioarteko Diru Fondoa eta Banku Mundiala bezalako erakundeen eskutan uzten dutela justizia.

Hemen eta Munduan erakundeak autobusa antolatu du Montpellierrera joateko; era berean, joan ezin direnentzat baina elkartasuna adierazi nahi dutentzat elkartasun ekitaldiak antolatu ditu Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan.

zutabea

Roberto Gz. de Viñaspre



Urte askoko bizitza

Hermann Hesse literatura Nobel saridun suitzarrak zera idatzi zuen berrogei urteen mugara ailegatu zenean: «Orain nire bizitzaren eguerdian nago». Bizitzaz jarrera baikorra zuen; norbaitzuek gainbeheraren hasiera ikusten duten unean bere burua bizitzaren onenean ikusten zuen, egitasmoz eta ilusioz hornitua. Ez zen oker ibili aurreikuspenean: bere egitasmoak gauzatu ahal izan zituen horretarako patuak edo dena delakoak beste berrogeita bost urte eman baitzizkion. Berrogei urteen bueltan gabiltzanok gogo onez hartuko genuke bizitzaren eguerdian gaudela eta oraino urte mordo dugula bizikizun. Horrekin konformatu beharko, Bibliako patriarka urtetsuen artean Matusalenen bederatzehun eta hirurogeita bederlatzi urterekin duen errekorra inguratu ezina onartuta —Matusalenen legez ehun eta laurogeita zazpi urterekin aita izatea ere iristezina begitantzen zait—.

Genesisiko Jainkoak gizakia paradisuetik bota eta hilkortasunera kondenatzearekin nahikoa eduki ez, eta haragi hutsezko gizaki gaixoen bizialdia murriztea erabaki zuen: «Ehun eta hoge urteko muga jarriko diot haren bizitzari». Behingoz ematen du zientzia eta erlijioa bat datozela, medikuntzako ikerlariak diotenez gizakion bizitzaren muga biologikoa ehun eta hoge urtekoa baita. Prentsaren bidez ezagutu berri dut Joan Riudavets menorcarra, ehun eta hamaika urterekin uste zientifiko hori baieztatzen datorrena —eta deskuidoan Itun Zaharreko Jainkoak inposatutako bizi-muga haustera—. Joan-ek dio aurrerapen teknologikoetan zirrara handienekoa argindarra dela: «Bonbilla kiribildu eta gaua urratu ahal izatea». Ene irudiko bere erantzuna da zirrargarria, bai eta bere buru-argitasuna, eta pentsakor geratu naiz: zer erantzun emango nieke antzeko galderei nire bizitzaren azken hatsetan? Luze joko ahal du!

seiko urrea

Itxaro Borda



Helduko ote gara? (V)

Bazter eta Hegi ahulegi hauetan, erakunde armatuaren balizko altxamendu orokorraren ametsa, musika erraldoia lukeen trufa bezala kontsideratzen kondenuatuak gara. Molde ezberdinez, Iparraldeko eta Nafarroako abertzalegoaren ideologi aldetikako gogortzea lortzen da; une honetan mugaz honaindian demagun, botereekiko *elkarrizketa* izpirik ez da, Baionako ABren afixatze kanpainak oso itxura agresiboa hartzen ari du eta orokorki abertzaleak, egitekotan, RPR nahiz UDFen zerrendetan azaltzen dira edo funtsean etiketarik gabe. Aipatzen ditudan azken *abertzale* hauek jadanik marra gorritz ezabatua dute borroka ar-

matuaren gaia, pertsonalki nahiz kolektiboki. Baina borroka armatuaren alorra udalatu ez duen olde abertzaleak, hegoaldeko erakundeek hondar urteotan praktikatzeko duten esku-sartze taktikoa onartzen eta justifikatzen dute, politikan deus ikustekorik ez duen Anaitasunean eta Euskararen Amankomuntasanaren ideian bermatuz.

Sofritzen eta pairatzen duten elite horiek lukete behialako altxamendu orokorraren ametsa egiaztatze ardurara, Iparraldean eta Nafarroan: erreprentazio ahalik bortitzena, oldarra ahalik handiena bihur dakiegun. Kontestu horretan zein ongi jiten zaizkigun CapVivre Ensemble taldearen kontzientzia

txarreko amalgama errazak, honen inguruan hazten diren eztabaida baliatuegiak eta Nafarroako gobernuaren euskararen aurkako erabaki inikoak! Zer ari gara bazter kideok egoera aztertzen oraino, bata alzeimerrak joa, beste ipar orratza herdoildurik eta azkena eskizofreniko hutsal bilakatzen? Fusilak hartu behar genituzke dagoeneko... besuinen itzalean etsaiaren aiduru plantatzeko. Erran beharra dago botere zentralak ere ez dutela gure arazoan imajinario berezirik eta segur aski iharduki baten zain daudela, geratzen diren itxinduen betirako itzaltzen hasiteko.

Bitxiki, ez dut beldurrik sentitzen, suntsipenaren suaren erraztunek biltzen nautela dakidan arren. Nahiz eta uste nuen inutil osoa izanez ez nuela horren ezagutzeko paradarik ukanen, badakit gaur neure aldia dela. Eta ez da etsaien kausaz.

Drogoren begiei odola bazerien.

kornerra

Mikel Elorza

Robot sindromea

Mapa genetikoa esku gutxitan eta interes ekonomikoaren menpe egotea ez da pozgarria. Ernegatzen nau pentsatzeak *aurkitzen* duten gene bakoitzeko haren kontura egingo dituzten patenteetan amets eginen dutela batzuek. Baina Genomaren aurkezpen eta saltsan, tristea iruditu zait asuntuari hartu diodan usaina, traza. Onartzen ditut bizidunon arteko desberdintasunaren eskasa, arrazen ezin arrazoitu genetikoa, fruitu-eltxoaren izter-lehengusu izatea... baina gizakia 30.000 genetara mugatzea oso itsusia egiten zait. Nire fedegabeziak utzi eta arimaren existentzian sinesten hastekotan nago. Nahiago baitut aminoazido multzo bat besterik ez naizela aditzen joan beharra baino. Hori bertzerik ez izan arren —ondo dago kontra-argumentu bezala!—, etengabe hori errepikatzea arruntegia zait. Robot-sindromea eragiten dit (eta hau ez da genetikoa).